



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2014ko ekainaren 25a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Redondo Lertxundi zinegotziak (EAJ) eta Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri, kanpoan daudelako, eta beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda irakurri aurretik, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du udalbatzarraren ohiko bilkurak hilaen azken ostegunean egiten direla eta, beraz, gaur asteazkena denez, udalbatzar hau, nahitaez, ezohikoa dela; bestalde, adierazten du bere talde politikoak ez duela parte hartuko gai-zerrendako 3., 4. eta 5. gaien bozketan, kreditua aldatzeko espediente horiek ez direlako Udaleko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean aztertu eta diktaminatu.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, alde batetik, udalbatzarra ostegunean ez egiteko arrazoi bakarra honakoa izan dela: idazkariari ezinezkoa zitzaiola ostegunean etortzea; bestalde, adierazten du egia dela ez dela Ogasun eta Pertsonaleko bilera espezifiko bat egin kreditua aldatzeko espedienteak aztertu eta diktaminatzeko, baina gaiari dagokion dokumentazioa Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzailearen ekainaren 19ko bileran banatu zela, eta hurrengo egunean Jon Redondo zinegotziari (EAJ) bidali zitzaiola dokumentazio hori posta elektronikoz, adieraziz ekainaren 24an, asteartearekin, egin zitekeela Ogasun eta Pertsonaleko bilera, egunaren edozein garaitan, gai horiek aztertu eta diktaminatzeko; alkateak dio Jon Redondo zinegotziak ez ziola erantzun bilera egiteko eskaintza horri.

Udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarrak ostegunean ez egiteko arrazoi bakarra honako hau izan dela: familiako arrazoiengatik ezinezkoa zitzaiola ostegunean etortzea, herritik kanpo egongo delako.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2014ko otsailaren 17ko eta apirilaren 10eko ezohiko bilkuretako akten zirriborroak.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2013ko aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 6/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 7/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua gaitzeko modalitatean egina dago.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 8/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.



- 6.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboa, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia prestatu, tramitatu eta onartzeko prozesuari dagokion Herritarren Parte-hartze Programa.
- 8.- Arrazoitan hartzea, egoki bada, Aranzadi Zientzia Elkarteak idatzitako Motondoko ingurumen balioak berreskuratzeko proiektua.
- 9.- Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Orioko jaiegunaren proposamena 2015. urterako.
- 11.- Onartzea, egoki bada, ELA sindikatuaren Udaleko ordezkariak aurkeztutako mozioa, udaltzainen erretiro aurreratuari buruz.
- 12.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2014KO OTSAILAREN 17KO ETA APIRILAREN 10EKO EZOHICO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2014ko otsailaren 17ko eta apirilaren 10eko ezohiko bilkuretako aktak.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2013KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2013ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2014ko maiatzaren 28ko GAO'n (99. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, oharra aurkezteko, 2014ko maiatzaren 29an hasi zen eta ekainaren 16an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, informazio publikoaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalaren 2013ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak eta Orio Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela koherente jokatzeke 2014ko maiatzaren 22ko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean emandako kontrako botoarekin, eta kontuan hartuta bere talde politikoak kontrako botoa eman ziola Udalaren 2013ko Aurrekontu Orokorren onarpenari.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 6/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2014 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 77.301 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzordeari aldeztu aurretik berri emanda, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 6/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 77.301 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ) zinegotziek ez dute bozketan parte hartu, kreditua aldatzeko espedientea ez delako alde aurretik aztertu eta diktaminatu Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 7/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2014 espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 45.006 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzordeari alde aurretik berri emanda, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga



(Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 7/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 45.006 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ) zinegotziek ez dute bozketan parte hartu, kreditua aldatzeko espedientea ez delako alde aurretik aztertu eta diktaminatu Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 8/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2014 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 68.576 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzordeari aldeztu aurretik berri emanda, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 8/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 68.576 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailera

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ) zinegotziek ez dute bozketan parte hartu, kreditua aldatzeko espedientea ez delako aldeztu aurretik aztertu eta diktaminatu Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean.

6.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOA, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Kontratua adjudikatzeko egindako lehiaketa publikora (2014ko maiatzaren 14ko GAO, 89. zenbakia) proposamen baliozko bakarra aurkeztu da, IKER IRAZUSTA TORN Orena, eta kontratazio-mahaiak kontratua hari adjudikatzeko proposamena egin du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio-mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIA BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2014ko ekainaren 10ean egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- ADJUDIKATZEA IKER IRAZUSTA TORN Ori Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontratua, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko, kontzesio administratiboko erregimenpean. Kontzesioaren urteko prezio edo kanona 18.680 eurokoa izango da (BEZik gabe). Adjudikaziodunak bere proposamen ekonomikoan adierazitako terminotan eman beharko du zerbitzua eta zorrotz bete beharko du baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (17.700 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA PRESTATU, TRAMITATU ETA ONARTZEKO PROZESUARI DAGOKION HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Programa horren xedea honako hau da:

Euskadiko Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen 2006ko ekainaren 30eko Hirigintzaren eta Lurzoruaren Legearen 108. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hiri Antolamendurako Plan Nagusi bat egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.



- Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.
- Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako lege eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

Testuinguru horretan sortutako dokumentuaren xedea hau da: Udalak Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berria prestatu eta tramitatzerakoan gauzatuko duen herritarrek parte hartzeko programaren ezaugarri nagusiak zehaztea.

Betiere, programa hori behar bezala zehaztu eta ulertzeko, nahitaezkoa da, aldezturik, Planaren tramitazioaren ezaugarri nagusiak labur azaltzea.

Udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du ekainaren 19ko Hirigintza eta Ingurumen batzordeko kideei banatu zitzaizen gaiari buruzko dokumentazioan akats material bat dagoela: aurrerakinaren gutxieneko jendaurreko epea ez da hilabetekoa, dokumentazioan agertzen den bezala, baizik-eta bi hilabetekoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2014ko ekainaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia prestatu, tramitatu eta onartzeko prozesuari dagokion Herritarren Parte-hartze Programa.

8.- ARRAZOITAN HARTZEA, EGOKI BADA, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK IDATZITAKO MOTONDOKO INGURUMEN BALIOAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proiektuaren xedea honako hau da, hitzez hitz:

El objeto del presente proyecto no es otro que la definición y valoración de las obras necesarias para la ejecución del proyecto de RECUPERACIÓN DE LOS VALORES AMBIENTALES DE MOTONDO, en el término municipal de Orio (Gipuzkoa).

El presente Proyecto de Ejecución desarrolla y adapta a los nuevos requisitos el Proyecto Básico entregado previamente, así como en el "proyecto de ejecución Fase



nº 1” que desarrollaba una primera parte del básico. Por otro lado, la definición del proyecto se basa en todo momento el “Estudio de Valores Naturales de Motondo” y las estrategias que en éste se plantean.

La recuperación de los valores naturales de Motondo tienen su base en una estrategia principal, que no es otra que recuperar el área de Motondo como zona de influencia intermareal, volviendo a su estado original de humedal, además de conservar, proteger y poner en valor los valores ambientales ya existentes de la zona.

Los objetivos del proyecto son tal y como se señalaba en el proyecto básico, la recuperación de Motondo como zona intermareal, por tanto la recuperación de la funcionalidad hídrica del mismo y la restauración de los hábitats propios del humedal, para que éstos puedan dar soporte a la importante biodiversidad de especies de la zona. Asimismo, se pretende poner en valor y promover el conocimiento y disfrute de esta zona de especial valor medioambiental.

Los objetivos principales son:

- Restaurar los diferentes hábitats de la zona intermareal mediante la recuperación de los procesos mareales y fluviales preexistentes.*
- Proteger, conservar y poner en valor los hábitats de especial interés existentes en la zona, como la aliseda, potenciando así la biodiversidad del lugar.*
- Restaurar hábitats para fauna de interés preferente o amenazada.*
- Promover la recolonización de la zona por parte de especies vegetales típicas del área.*
- Gestionar los suelos potencialmente contaminados de la zona, de la forma más sostenible y viable posible.*
- Promover un uso público racional del área así como la educación ambiental entorno a esta zona de especial interés.*
- Crear en el área una zona de esparcimiento, manteniendo el paseo como lugar de conexión entre Orio y Andatza y controlando el uso recreativo de la zona.*
- Posibilitar la ejecución de la vía ciclista peatonal Usurbil-Orio (tramo III hojas 4-11).*

Tomando el proyecto básico redactado en 2012 como un punto de partida para la consecución de los objetivos descritos, durante la elaboración del presente proyecto se han desarrollado y estudiado las diversas alternativas valoradas en el proyecto



básico, y se ha adaptado la elegida como óptima a los nuevos factores surgidos desde aquel momento (ver apdo. 4. ELECCIÓN DE LA ALTERNATIVA PROPUESTA de esta memoria), permitiendo poder concretar el alcance de los trabajos a realizar para lograr materializar los objetivos planteados. Estos trabajos se describen en el apartado 6. DESCRIPCIÓN DE LAS ACTUACIONES de la presente memoria.

Proiektuaren kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontu nagusia 2.063.240,72 eurokoa da (BEZa barne).

Kontuan hartuta nolako lana egin behar den eta aurreikusitako bitartekoak zein diren, proiektuaren exekuzio-epea 12 hilabetekoa izango da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2014ko ekainaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- ARRAZOITAN HARTZEA Aranzadi Zientzia Elkarteak idatzitako Motondoko ingurumen balioak berreskuratzeko proiektua.

2.- Proiektu horri buruzko **TXOSTENA ESKATZEA** erakunde publiko eskudunei; besteak beste, honako hauei:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Lurralde Antolaketa Departamentua
- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikaren Saila
- Ur Agentzia (URA)
- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusia.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela bi arrazoiengatik: batetik, gai hau 2013ko uztailaren 2ko bilkuran aztertu zuela Udaleko Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak eta orain ekartzen dela udalbatzarrera, ia urtebete pasa eta gero. Bestetik, bere talde politikoa Motondoko itxitura ezeren truke urez bete eta Estatuaren jabari publiko itsas-lehortarrean sartzearen kontra dagoela; beren ustez, egokiena Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak Motondoko itxiturako udal jabetzapeko lurak eskuratzea izango litzateke.



Alkateak hartzen du hitza eta xehe-xehe azaltzen die bertaratuei zein diren Motondoko ingurumen balioak berreskuratzeko planteatzen diren jarduketak, eta adierazten du Aranzadik idatzitako proiektuak ez duela planteatzen Motondoko itxitura urez betetzea 'ezeren truke' baizik-eta 'askoren truke': bertako fauna, flora, landaredia, bioaniztasuna eta abar berreskuratuko bailirateke.

9.- ORIOKO BAKE EPAITEGIKO BAKE-EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Idazkariak irakurri egiten ditu barrutiko Bake Epaitegiko epaile titularra eta epaile ordezkoa aukeratzeko aplikagarriak diren lege-arauak eta irakurtzen ditu, baita ere, horretarako irekitako espedientean gaurko egunera arte ageri diren diligentziak eta jarduerak.

2014ko apirilaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (67. zenbakia) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, Orioko Udalak jakinarazi zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99.etik 103.era arteko artikuluetan eta bake-epailei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokiola pertsonak aukeratzea bake-epaile titular eta bake-epaile ordezkoko izendatuak izateko; interesa duten pertsonak instantzia aurkeztu behar dute udaletxeko erregistro nagusian, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei eguneko epearen barruan; interesatuek instantzian jaso behar dute exijitutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela, eta agiriak aurkeztu beharko dituzte, hori frogatzeko eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela frogatzeko; hautagaiek erantsi beharko dute, baita ere, txosten labur bat, beren hautagaitzaren egokitasuna arrazoituz eta behar diren xehetasunak emanaz hori baloratzeko; behin instantziak aurkezteko epea bukatuta, udalbatzarrak aukeratuko ditu bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aurkeztu direnen artean, baldin eta legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; hautagaitzarik ez balego, udalbatzarrak libreki aukeratuko ditu, ezarritako prozedurari jarraituz, eta eskumena duen Jurisdikzio Organoari jakinaraziko dio gero.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarraren eskumena da bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aukeratzeko proposamena egitea; erabakia udalbatzarkideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu behar da (hau da, hamahiru udalbatzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko maiatzaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- MIRARI ARRIOLA IRIZAR AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile titular kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitorpen bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

2.- ARITZ GONZALEZ ELIZONDO AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile ordezkari kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitorpen bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

3.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzeko ziurtapena Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren presidenteari, karguak betetzeko proposatutako pertsonen berariazko onarpenekin eta ezgaitasun edo bateraezintasun kausatan sartuta ez daudela dioten aitorpenekin batera, dagozkion izendapenak egin ditzan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO JAIEGUNAREN PROPOSAMENA 2015. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2015. urtean ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekupeatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren apirilaren 15eko 61/2014 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2015. urterako.



11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ELA SINDIKATUAREN UDALEKO ORDEZKARIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDALTZAINEN ERRETIRO AURRERATUARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. ELA sindikatuaren Udaleko ordezkariak aurkeztu duten mozioak honela dio, hitzez hitz:

Orioko udaleko ELAko Atal Sindikalak, bere afiliatu direnen ordezkari izanik, udaleko talde politikoek ondorengo MOZIO hau zuena egin eta plenuan eztabaida eta bozketarako aurkezteko eskatzen du.

UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO MOZIOA

Jakingo duzuen moduan, 2008 urtean (martxoaren 14ko 383/2008 Erret Dekretua), Suhiltzaileek, 60 urterekin jubilatuta ahal izateko eskubidea lortu zuten, beraien lanaren egoerak kontutan hartuta.

Era berean, 2009 urtean, EAJ-PNV eta PSOEek Madrilgo Parlamentuan eginiko akordio baten bitartez, Ertzaintzarentzako 60 urterekin aurrejubilatze eskubidea lortu zen, hau ere, poliziek egiten duten lanaren ezaugarriak kontutan hartuta. Akordio honek, 2010ean izan zuen efektu data, Seguritasun Sozialaren gaien materiak arautzen dituen abenduaren 4ko 40/2007 Legean, jubilatze adinean aplikatzen diren murrizketa koefizienteen ingurukoan zuzenki, aldaketa batzuk sartuta.

Ulergaitza den arren, sinatzaileek ez zuten Euskal Polizia Legeak esaten duena kontuan izan eta akordio horrek ez zuen Euskal Udaltzaingoa kontutan hartu. Lege horrek argi esaten du, EUSKAL POLIZIA, Ertzaintzak eta Udaltzaingoez osatzen dutela eta bi poliziek egiten duten lana antzerakoa dela, bai funtzioetan, baita gaikuntza profesionaletan ere.

Lege aldaketa hau justua eta behar beharrezkoa zen, izan ere polizia ogibidea, bereziki zaurgarria eta bere lan-bizitza benetako egoerara doitu beharrezkoa zela argi utzi baitzuen. Egoera hau Gizarte Segurantzako Lege Orokorrek bere 161.1 bis artikuluan babesten du, "bereziki penagarriak, toxiko, arriskutsu eta osasunaren kalterako" diren ogibideen eta "heriotz tasa altuak" dauzkaten ogibideak koefiziente murriztaile hauek aplikatuko zaizkiela.

Esandako koefiziente murriztaileak aplikatzeak, sektorean dagoen penositate, arrisku eta toxikotasunaren gaineko lanak egitea exijitzen du, langileek izaten dituzten behin behineko ezgaitasunetan dauzkaten eragina eta esandako lana egiteko eskatutako baldintzen gaineko lanak egitea ere exijitzen du.

Unibertsitate ezberdinek, udaltzainen eta polizia autonomikoen inguruan egin dituzten ikerketen arabera, arrisku eta penositate zantzuak daudela esaten dute eguneroko lanean eta lanpostu hauetara sartzeko eta eguneroko lana



normaltasunez egiteko eskakizun psikofisikoak kontutan hartuta, adin batetik aurrera ezin dela lanpostu honetan normaltasunez lan egin ere esaten dute. Era honetan, legediak jubilatzekeo murrizketa koefizienteak izateko baldintzak guztiz betetzen dira.

Polizia lana arriskutsutzat jotzen den lana dela inork ez du eztabaidatzen jada, menpe dagoen instituzioa edozein izanda ere: Legediak, eginiko ikerketa lanek, lanean, adinean aurrera joateak daukan eragina (batez ere hiri handietan), etab. jubilatzekeo adina aurreratzearen alde egiten dute.

Europa erreferentziatzat hartzen badugu, herrialde gehienetako polizien erretiratzeko baldintzak mozio honetan eskatzen denaren ildoan daude: Alemanian, 55 eta 60 urte artean jubilatzen dira; Belgikan 54 urtetik aurrera; Grezian 55 urterekin; Ipar Irlandan 35 urteko aintzinasuna hartzean; Italian, Norbegian bezala, 60 urterekin eta Erresuma Batuan 57 urterekin.

Oreka ekonomiko eta finantziarioari begiratuz gero, aipaturiko legeak (Gizarte Segurantzako gaien inguruko abenduaren 4ko 40/2007 Legea) bere bigarren xedapen gehigarrian, erretiro adinerako koefiziente murriztaileen inguruan zera esaten du: “El establecimiento de coeficientes reductores de la edad de jubilación, que sólo procederá, cuando no sea posible la modificación de las condiciones de trabajo, conllevará los ajustes necesarios en la cotización para garantizar el equilibrio financiero”. Gizarte Segurantzaz egin beharreko doikuntza horiek, Udaltzainek beraiek eta lana egiten duten administrazioek bere gain hartu beharko dituzte, Gizarte Segurantzara egin beharreko beraien atxikipenak handituz.

Ildo honetan, kostuen inguruko ikerketa akturialek, neurri hau hartzeak ekartzen dituen onuren inguruko edozein zalantza bertan behera uzten du. Udaltzainen erretiro adina aurreratzeak dakartzan Gizarte Segurantza kostuak igoko balira ere, plantillen gaztetzea ekarriko luke nahitanahiez eta ondorioz, absentismo eta behin behineko ezgaitasunen gutxitzea. Langile eta zerbitzuen errendimendua hobetzea ekarriko luke honek eta era berean hiritarrei zerbitzu hobe bat eskaintzeko puntu hobean jarriko luke instituzioa, baldintza psikofisiko hobeak izateak, Hiritarrentzako Segurtasunean eragin zuzena dauka eta.

Gainera, gogoratu behar dugu apirilaren 12ko 1/2007 Legeak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak, zera esaten duela bere seigarren xedapen gehigarrian: “(...) el Gobierno presentará en el Congreso de los Diputados un estudio sobre los distintos regímenes de acceso a la jubilación de los funcionarios que contenga, entre otros aspectos, recomendaciones para asegurar la no discriminación entre colectivos con características similares y la conveniencia de ampliar la posibilidad de acceder a la jubilación anticipada de determinados colectivos (...)”.

EAEko datuei begirata, udalerrri guztiak kontutan hartuta dauden 3.300 udaltzain ingurutik, 500 baino gehiagok 60 eta 65 urte bitartean edukiko ditu



hurrengo bost urteetan, hau da, %17a lehenago jubilatzeke adinean egongo da eta beste 600 baino gehiagok 55 urte baino gehiago izango ditu.

Udaltzainen aurre jubilazio honek, gainera, enplegu sorrera garrantzitsua ekarriko luke, gazteei lan merkaturako sarrera ahalbidetuko lioke, eta hau, enplegu sorrera izan beharko litzateke edozein instituzio publikoren oinarri garrantzitsuenetako bat. Azpimarratu behar dugu, aurre jubilazio honen helburua inoiz ezin dela izan lanpostuen amortizazioa, eta lanpostu horrek duina, egonkorra eta kalitatezkoa beharko lukeela.

Gainera, langileen gaztetzea ere ahalbidetuko luke, instituzioek langile aktiboagoak izango lituzketa eta honek, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea ekarriko luke.

ELAk askotan salatu du Euskal Herriko Udaltzaintzako, Ertzaintzak (eta beste polizia batzuk) aurre jubilatzeke aukera edukitzeak suposatzen duen marjinazioa. Honek, erregulazio baten beharra dagoela berretsi bestetik ez du egiten eta era berean euskal udaltzainak Ertzaintzak eta beste polizia batzuek daukaten baldintzetara ekiparatu beharra. Arrisku berberak, estaldura berbera.

Orain arte esandako guztia kontutan hartuta, ELAk, Euskal Udaltzaingoaren erretirorako baldintzak Ertzaintzak dauzkanarekiko ekiparatzea eskatzen du, erretiro adinaren erregulazioan aldaketa bat eginda. Honetarako Erret Dekretu bat egin beharko litzateke euskal udaltzaingoari ere erretirorako adinean koefiziente murriztaile bat aplikatu ahal izateko.

Horregatik, ELAko Atal Sindikala, mozio hau udal talde guztiek bere egitea eskatzen dugu, plenuan eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko.

Aurrez esandako guztiagatik, AKORDIO hauek proposatzen dira, onartuak izan daitezen.

1. Orioko udala, Gizarte Segurantzaren gaineko egungo legedia aldatzeko prozesua zabaltzearen alde azaltzen da, Euskal udaltzainei aurre jubilatzeke koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena.

2. Orioko udalak, Eusko Legebiltzarrari agindu ematen dio, era berean Espainiako Gobernua premiatzeko Gizarte Segurantza gaietako egungo legediaren aldaketa prozesua hasi dezan euskal udaltzainei aurre jubilatzeke koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena



3. Orioko udalak, Euskal Udalen elkarteei (EUDEL eta UDALBILTZA) agindu ematen die ekintza honi babesa emateko eta ordua helduta berau aurrera eramateko datu eta dokumentuak eman ditzaten.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA ELA sindikatuaren Udaleko ordezkariak aurkeztutako mozioa, udaltzainen erretiro aurreratuari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,